20 17

ZUBIETAKO HIPODROMOA

Zubieta Donostiako toki bat da, Iurralde nagusiko hegoaldean kokatuta dago eta Lasarte-Oria eta Usurbil udalerriekin mugatzen du.

Zaldien lasterketan Zubietan antolatzen dira, Donostiako Udal Hipodromoan. Aipatutako kirol instalazioa baino lehen Los Juncales izeneko hipodromoa izan zen (1907), Igeldoko oinean.

Lasarteko hirigunetik gertu zegoenez, zenbait denboraz "Lasarteko Hipodromoa" deitu zuten, kokatuta dagoen lurraldea beti Donostiako udal mugartekoa izan arren.

Europako hipodromoak itxi ziren Lehenengo Mundu Gudan eta hori zela eta, Zubietako hipodromoa eraiki zen (1916) Luis Elizalde arkitektoak diseinatuta, zonaldea saneatzeko lan ugari egin ondoren. Hura abian jarri ondoren, Europako hainbat zalditegik bere instalazioetan babesleku bilatu zuten Gudak iraun zuen bitartean. Aipatutako guda amaitzean, eta nazioarteko partaidetzarik ez eduki arren, hipodromoak jarduera garrantzitsua garatu zuen; hala ere, Martín Domínguez jabe jaunak Udalari hipodromoa saldu behar izan zion 1925ean.

Mende hasieran aireportu zibil gisa erabili zuten eta Espainiako Guda Zibilean, Hipodromoa abiazio militarreko zelai bilakatu zuten eta bertan muniziorako biltegi bat, erregairako beste bat eta hormigoizko bobedak zituen hangar bat eraiki zuten.

1940ean, zaldien lasterketak itzuli ziren, eta Donostiako Hipodromoaren Elkartea sortu zen, hura kudeatzeaz arduratzeko. Antolatzen ziren proben artean, Donostiako Urrezko Kopa izenekoa azpimarratu behar da. Hura Aste Nagusian antolatzen da 1966. urtetik. Baita Kutxa Sari Nagusia, etab.

Donostiako Sustapen Elkartea kudeaketaz arduratu zen XX. mendeko azken urteetan eta 2005. urtetik aurrera, berriz, 20 urtez, Ian horiek Hipódromos y Apuestas Hípicas de Euskadi, S.A. (HAHE) enpresari egokitu zizkioten. Azken horretan Gran Casino Nervión SA, El Nuevo Gran Casino del Kursaal de San Sebastián eta Periphériques et Materiels de Controle enpresek hartzen dute parte.

Gaur egun, Donostiako hipodromoak bi pista zentrokide ditu: belarretako bat (1.610 m luzera) irteera lerro zuzenarekin eta hondarrezko beste batekin (1.500 m). Barruan jauzietarako pista bat gaitu daiteke. Horrez gain, zalditegiak, tribunak eta apustuetarako azpiegitura dauzka.


Gehiago jakiteko: Pasión por las carreras: 85 años del hipódromo de San Sebastián / J. Sada. 2002.



Errege Tribuna 1915ean. CC BY SA. Fondo Foto Car. Ricardo Martín. Kutxa Fototeka. Gure Gipuzkoa



Tribuna 1921ean. CC BY SA. Fondo Foto car. Ricardo Martín. Kutxa Fototeka. GureGipuzkoa.






1943. urtea. Hangarrek oraindik aurrealdeko estalpea kontserbatzen dute. CC BY-SA. Fotocar. Vicente Martín. Kutxa Fototeka.



Hangarren egoera 2016an.

Hipodromoaren hangarrak
1. Pantaila murrua.
2. Bobedak.
3. Alboko murrua.
4. Markesina.
5. Alboko aldapa.



Ortoargazkia 1954. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Hipodromoak Erregearen zerbitzurako (1) tribuna bat izan zuen, bi solairuko eraikin batek osatuta. Bertan, arkupe bat zegoen behe solairuan eta terraza bat lehenengo solairuan eta handik lasterketak jarraitu zitzakeen.

Horrez gain, harmailak ere zituen (2) partzialki estalita. Estalkian ere ikusleak hartzeko aukera eskaintzen zuen.

Hala ere, hipodromoarekin lotutako elementu bitxienak ez daude zaldi lasterketekin lotuta, baizik eta abiazio zelai gisa (7) erabiltzen zen garaiarekin, abiazio zibila zein militarra; azken hura Guda Zibilaren lehenengo sei hilabetetan. Haren zerbitzurako hangar bat eraiki zen zazpi horma-hobirekin (6), eta baita erregai (5) eta muniziorako biltegiak ere (4).



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlraittza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 579375 m // Y: 4790432 m.

Azken urteotan hipodromoek zailtasun ekonomikoak eduki arren, Zubietakoa eraginkor mantentzen da. Ikusleentzako lau tribuna ditu (horietako bat, aldi baterako, zerbitzutik kanpo dago) eta baita mota honetako ekipamendu batek behar dituen zerbitzu guztiak ere. Hipodromoa udako denboraldian erabiltzen da bakarrik, nahiz eta zenbait urtetan beste denboraldietan ere erabili izan. Aireportuko pisten aztarnak desagertu dira.

Hangarrak kontserbatzen dira (5), inprobisatutako biltegi beza erabilita, eta baita ere erregai (ureztatzeko ur tanga bilakatuta) eta munizio biltegiak (gaur egun ezin dira erabili lurrez estalita daudelako).